

## BARGOTAKO AZTIA IKUSTEKO UKENDUA

### Osagaiak:

- Borragomaren hautsak (bi borragoma)
- Klarionaren hautsa (klariona bat)
- Armiarma baten lau hanka
- Bitxilore baten petaloak
- Arratoiaren buztana
- Pikuaren "esnea" eta piku osoa
- 33cl-ko lata bat koka kola

### Osagaiak nondik hartu

Borragomaren hautsak hartzeko, bi borragoma behar ditugu. Paper baten gainean jarri eta hasi ezabatzen. Hor dauzkazu hautsak!

Pikuaren esnea lortzeko, piku bat behar dugu eta zuhaitzetik kentzean pikuaren puntan likido txuri bat aterako da. Orduan hitz hauek esan behar dituzu ixilpean:

Piku, piku,  
esne, piku.

Orduan pikua oso kontu handiz eraman beharko duzu sukalderraino.

### Osagaiak nola nahastu:

Lehenego, kazola bat hartu eta ura botako diogu. Gero, sua hirugarren zenbakian piztu eta utzi berotzen, ura lurruntzen ikusi arte.

Orduan borragomaren hautsak botako ditugu eta klarionaren hautsak ere bai. Gero, bi minutuz goilara batekin erlojuaren orratzak doazen bezala bueltak eman. Orduan 33cl-ko lata ireki eta kokakola bota.

Geroxeago, arratoiaren buztana plater batean bota eta gutxigora behera 2cm-ko zatietan moztu. Buztanarekin

armiarmaren hankak jarriko ditugu eta azkenik bitxiloreen petalo guztiak.

Honekin guztiarekin pikua lau zatitan moztu, esne tanta kazolan bota eta gero. Orduan dena nahastuta kazolara botako dugu. Kazola beste bost minutu utzi berotzen eta gero itzaliko dugu. Utzi kazola leihoan bi egunez eta ukendua prest dago erabiltzeko.

### [Ukendua nola erabili](#)

Ukendu hau lau urtetik hamar urtera bitarteko umeentzat egokitua dago. Baina norbaitek probatu nahi badu, ez da ezer txarrik gertatzen.

Kazola leihotik hartu eta edalontzi batera bota, hau bete arte. Orduan, ukendua hartu behar duen pertsonak basokada edan eta bi ordu barru, bakarrik egon behar da Bargotako Aztia ikusteko.